



**Info**

**EUSKO JAURLARITZAREN MENPEKO  
LANGILE PUBLIKOEN ABENDUKO  
ORDANSARIAREN AFERAREN INGURUKO  
URJENTZIAZKO OHARRA**

Berriki jakin dugu Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Eusko Jaurlaritzaren menpeko langile publiko Gabonetako ordainsariaren ordainketa eteteko hartutako erabakia. Gabonetako ordainsariaren inguruko albiste hau asteotan sektore publikoan eta komunikabideetan nagusitu den aferaren azken episodiora dugu momentuz. Bertan, PNV eta PSEren arteko lehia alderdikoia, langile publikoen eskubideen erabilera interesatua eta sektore publikoaren egoeraren eta etorkizunaren inguruko ikuspegi mugatua nagusitu dira.

Auzitegi Konstituzionalak datorren injerentzia berri honek langile publikoen eros-ahalmenean eta bertako ekonomiaren sustapenean izango duen eragin kaltegarriaz gain, lehen mailako gatazka politiko bat da agerian uzten duena: Euskal Herriak behar duen sektore publikoa antolatu, bere beharren arabera zerbitzu publikoen eskaintza gauzatu eta bertako langile publikoen eskubideak arautzeko duen eskumen falta, hain zuzen ere.

Eta eremu publikoan ez da lehenengo aldia egun indarrean dagoen marko juridiko-politikoak dituen mugak eta ezintasunak agerian gelditzen dena. Azken hilabete luzeetan PPren Gobernuak kaleratutako dekretu eta neurri ezberdinak euskal herritarren eskubide sozialen eta bertako langile publikoen aurkako eraso zuzenak dira. Hortxe ditugu LOMCE hezkuntza erreforma edota justiziaren kopagoa eta tasa judizialak bezalako adibideak.

Egoera honetan, bertako langile publikoak, eta euskal herritarrak orohar, gabonetako ordainsariaz gain bestelako afera sakonago bat dugu jokoan: Euskal Herriko sektore publikoa eta bertako langileen lan baldintzak bertan erabaki ahal izatea. LABen ustez hor dago bataila nagusia. Bataila hau politikoa da; hamaikagarren aldiz agerian gelditu da arduradun politiko eta instituzional ezberdinek arakatu nahi izan duten "zirrikitu juridikoen" bidea antzua dela; Madrilen PPren Gobernuak edo Auzitegi Konstituzionalak erabakitzen duenaren arabera dela. Beraz, eman beharreko bataila nagusia ez da juridikoa, politikoa baizik.

Alde horretatik, Euskal Herrian horrelako inposizioen aurka gauden eragile politiko, instituzional, sindikal eta sozialen artean injerentzia hauei aurre egiteko oinarrizko adostasun bat lortzea ezinbestekoa da. Horrek guztion parte hartzea eta inplikazioa eskatzen du. Herri ariketa da egin behar duguna, burujabetzan oinarritutakoa; neurri hauen aplikazioa ezinezko egingo duen harresi soziala. Bide horretan bakoitzak bere erantzukizunetatik, baita instituzionalak ere, bere konpromisoak hartu eta planto egiteko beharrezkoak diren urratsak eman behar ditu.

Egoeraren inguruko irakurketa zabalagoa egingo du datozen egunetan LAB sindikatuak. Zentzu horretan, eta egoeraren lehenengo salaketa ekimen gisa, datorren astean mobilizazioak egingo ditugu Hego Euskal Herriko hiriburuetan Espainiako Gobernu Ordezkaritzen aurrean.





**Info**

**NOTA DE URGENCIA EN TORNO  
A LA PAGA DE DICIEMBRE DE LOS  
TRABAJADORES Y TRABAJADORAS  
PÚBLICAS DEL GOBIERNO VASCO**

Finalmente el Tribunal Constitucional español ha decidido suspender el abono de la “paga” de Diciembre a los trabajadores y trabajadoras dependientes del Gobierno Vasco. Este es el último episodio de la noticia más comentada en las últimas semanas en el Sector Público y en los medios de comunicación, en el que han predominado la disputa partidista entre PNV y PSE, la utilización interesada de los derechos de los empleados y empleadas públicos y una visión muy limitada de la situación del Sector Público y de su futuro.

Además de los efectos negativos que esta nueva injerencia que nos llega del Tribunal Constitucional tendrá sobre la capacidad adquisitiva de los y las empleadas públicas y sobre el estímulo de la economía local, lo que deja en evidencia es un conflicto político de primer orden: la falta de capacidad de Euskal Herria para organizar el Sector Público que necesita, ofrecer unos servicios públicos en función de sus necesidades y regular los derechos de los trabajadores y trabajadoras de dichos servicios.

Y en el ámbito público no es la primera ocasión en que quedan en evidencia las limitaciones e incapacidades del marco jurídico-político vigente. Los distintos decretos y medidas aprobadas e impuestas por Rajoy en los últimos meses atacan directamente los derechos del colectivo trabajador de los Servicios Públicos y el derecho de la ciudadanía vasca a

disponer de esos servicios. Ejemplo de ello son la Reforma educativa de la LOMCE, el copago en la Justicia o la privatización del Registro Civil.

Ante esta situación, los trabajadores y trabajadoras del Sector Público y la ciudadanía en general debemos ser conscientes de que lo que está en juego no es sólo la "Paga de Navidad", sino algo más profundo: la capacidad de Euskal Herria para decidir sobre su sector público y sobre las condiciones laborales de sus trabajadores y trabajadoras. En opinión de LAB ahí está el quid de la cuestión. La respuesta que tenemos que dar es política y no jurídica. Una y otra vez ha quedado demostrado que el intento de buscar resquicios legales por parte de responsables políticos e institucionales es una vía estéril que depende de lo que en Madrid el Gobierno del PP o el Tribunal Constitucional decidan.

Por todo ello, es imprescindible que entre todos los agentes políticos, institucionales, sindicales y sociales de Euskal Herria que estamos en contra de este tipo de imposiciones alcancemos acuerdos básicos de actuación frente a estas injerencias. Esta respuesta requiere de la participación e implicación de todos y todas: ciudadanía y trabajadores y trabajadoras también. Tenemos que dar una respuesta como Pueblo en favor de nuestra Soberanía: un gran muro social que haga imposible la aplicación de las medidas de recorte impuestas desde España. Cada cual desde su responsabilidad, las instituciones también, adquiriendo los compromisos que le corresponden y dando los pasos necesarios para decirle "basta ya" al Estado español y hacerle un planto.

En los próximos días el sindicato LAB realizará una lectura más amplia de la situación. No obstante, y como primer acto de denuncia pública, la próxima semana llevaremos a cabo movilizaciones en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria frente a las Delegaciones del Gobierno español.

